



2012-2013ko Gaztelekuko plangintza hau bi ataletan izango duzue eskuragarri. Lehenik eta behin, irailetik abendurarteko plangintza garatuko dugu; eta honen ondoren, urtarriletik aurrerakoa.

## IRAILA

### Helburua:

- Ongi etorria ematea, lehenengo urteko gaztetxoei.
- Lehen urteko gazteek, Gaztelekuko filosofia eta arauak barneratzea.
- Gainontzeko gazteek, lehenengo urteko gazteei, Gaztelekuko filosofia eta arauak helaraztea.
- Gurasoei gaztelekuaren funtzionamendu eta plangintza azaltzea, eta izan ditzaketen edozein kezka eta zalantza argitzen saiatzea.

### Gaia: Ongi etorri Gaztelekura!

Aurten, Gaztelekuaren irekieraren berri emateko, institutura joango gara. Honela, gaztetxoenei Gaztelekuaren nondik norakoen berri emango diegu, bertara hurbiltzera animatuz. Institutuko bisita honetan, adin guztietako gazteengana hurbilduko gara, ez soilik aurten gaztelekua lehen aldiz zapalduko duten gazteengana. Beste gazteei ere gaztelekuaren irekieraren berri emateaz gain, beraien gomendio eta aholkuak aipatzea eskatuko diegu, guztion nahien arabera urteko plangintza politagoa osatzeko asmotan.

Urtero bezala, ikasturte hasieran 12-13 urteko gaztetxoak hurbiltzen dira Gaztelekura. Hortaz, gazte hauek gaztelekuko funtzionamendua ezagutzea ezinbestekoa dute. Ez baitu zer ikusirik, ez eskola, ez txantxangorri edo ludotekaren funtzionamendu egiturarekin. Gaztelekua, bereganatu egin behar dute, hau da, beraiena dela sentitu eta beraiak egiten duten lanaren arabera ekintza ezberdinak izango dituztela eta beraiak izango direla ekintza hauek prestatzeko arduradunak. Horretarako, beste urteetan Gaztelekua aurrera eramaten ari diren gazteak izango dituzte bidelagun.

Bestalde, gaztelekua osatzen duten gazte guztien gurasoekin bilera deituko dugu irailaren 28rako. Bilera honen arrazoi nagusia, gurasoei gaztelekuaren funtzionamendua eta filosofiaren berri eman, eta urteko plangintza azaltzea izango litzateke.



## URRIA

### Helburua:

- Beraiek prestatutako ekintzak errealitatean aplikatzen jakiteko gaitasuna lortzea.
- Herriari gure ekintzen berri ematea eta parte hartzera bultzatzea. Herriko beste elkarte eta jendearekin komunikazio egoki bat emateko gaitasuna lortzea.

### Gaia: Gaba beltza!

Aurreko urteko ekintza berria aurrera eramateko asmoa dugu. Hau da, dantzariekin eta gaztetxekoekin batera kalera irtetea (mamuarekin). Horretarako, jantziak prestatu behar dira eta dantza edota antzerkiren bat sortu eta ikasi. Bestalde, beste bi taldeetakoekin adostu beharko da aurten zer egingo den eta horretan parte hartuko dute gazteek.

Honez gain, gaztetxeko gazteekin elkarlanean, gaztainak saltzera irtengo gara beheko plazara; honela, ekintza berri hau buruturik, autogestioa bultzatuko genuke ondorengo ekintzetarako oinarri ekonomiko minimo bat lortzeko asmoz.

Amaitzeko, urriak 28an, hau da urriko azken asteburuan, 2 urtean gaztelekuko begirale izan den Hodeiren agurra ospatuko dugu; Gaztelekuan eginiko lana eta urteetan gazteekin izandako jarrera ona eskertzeko.

## AZAROA

### Helburua:

- Ekintza ezberdinak osatzeko gai direla jabetzea, antolakuntza eta funtzionamendu egoki bat izanik.
- Saio ezberdinen bitartez eta dinamika ezberdinak garatuz, sexualitatearen inguruko informazioa barneratzea eta kezak zein zalantzak modu eroso batean azaltzea.

### Gaia: Sexualitatea.

Azaroan "Ixa Sexualitate eskolako" kideak etorriko dira Gaztelekura gazteei sexualitatearen inguruko saio ezberdinak ematera. Saio hauek adinaren arabera banatuak izango dira, hau da, lehenengo saioa DBH1.gazteentzat izango da; bigarrena DBH2 eta DBH3.mailako gazteentzat; eta azkena, DBH4 eta 1.batxillerrean dauden gazteentzat. Taldeen egituraketa hau egiteko arrazoia, adina eta gazteek duten lotura eta harremanek ezarri dute.



Beraz, 3 saio ezberdin izango dira. Saio bakoitzak 6 ordu iraungo ditu, hau da, talde bakoitzarekin asteburu bat jorratuko dugu; ostiralean 2 ordu, larunbatean beste 2 eta igandean beste horrenbeste. Saio hauetan (sakontasuna eta modua ezberdina izango da adinaren arabera), gorputza, genitalak, erotismoa, pornografia... landuko dira; beti ere modu dinamiko batean.

Bestalde, talde bat sexualitate saioa jasotzen ari den bitartean, talde horretan ez dauden gazteekin Santo Tomas eguna antolatuko dugu. Aurtengo Santo Tomasetan, zozketa, txorixo salmenta, eta 2. eskuko denda antolatzeko asmoa daukagu. Honela, herrira begirako ekintza deigarri bat egiteaz gain, autogestioa bultzatuko genuke.

## ABENDUA

### Helburua:

- Beraiek prestatutako ekintzak errealitatean aplikatzen jakiteko gaitasuna lortzea.
- Autogestiorako ekintzak antolatzeko gaitasuna lortzea.

### Gaia: Santo tomas!

Santo tomasetan postua jartzen dugu beste herriko taldeek bezala goiko plazan. Bertan, gaztelekuan aurrez egindako eskulanak saltzen ditugu. Honela, beraien lana plazaratzeaz gain, gaztelekuan izango diren hurrengo ekintzak burutu ahal izateko diru pixka bat irabazten dute.

Santo Tomasetako ekintzaz gain, gabonetan ere ekintza ezberdinak burutzea proposatuko dugu; bai gazteleku barruan (eskulanak, talde jolasak, dinamika berriak...) eta baita gaztelekuetik at (mendi irteerak, zinemara...). Ekintza hauek gaztelekuko gazteen nahien arabera finkatuko ditugu.

**\*Kontuan izan behar da, gazteen nahi eta beharretara moldatuko dela plangintza hau, beraz posible da hemendik eta urte bukaerara ekintza batzuk desagertu eta beste berri batzuk sortzea.**



LAPAZORRI aisialdi elkarte

## 2012-2013ko GAZTELEKUKO PLANGINTZA

Irailetik abendura

**Hodei Hernandez**

**Ihintza Basterretxea**

**Edurne Txurruka**